

BIDEZKO MERKATARITZA

BIDEZKO MERKATARITZA

ALTERNATIBA ETIKO GISA

Betidunik, Iparrek lehiakortasuneko eta etekin handieneko irizpideak bultzatuta jardun du merkataritza-harremanetan eta Hegoa, aldiz, lehengaien hornitzaile soilak baino ez da izan, prezio baxuan eta eskulan merkea baliatuta.



Nazioarteko mugimendua dugu Bidezko Merkataritza, eta merkataritza-harremanetan Iparrean eta Hegoaren artean izaten diren desberdintasun-arazoei aurre egitea du helburu. Nazioarteko merkataritzarako alternatiba da, eta irizpide ekonomiko soil-soilak ez ezik, balio etikoak, eta gizarte eta ingurumen arlokoak ere kontuan hartzen ditu.

BIDEZKO MERKATARITZAREN SUBJETUAK

Hegoko pertsona produzitzaileen eta Iparreko pertsona inportatzaile eta kontsumitzaileen arteko lankidetzarako merkataritza-harremanetan oinarritua dago Bidezko Merkataritza.

Hegoko herrialdeetan, badira beren produktuak lantzeko kooperatibetan, lan-taldeetan eta elkarrean antolatzen diren komunitateak. Bidezko Merkataritzaren lehen maila dira produzitzen duten pertsona horiek.

Iparreko herrialdeetan, Bidezko Merkataritzako erakundeek talde horiekin lan egiten dute horien produktuei merkatua zabaltzeko. Enpresa inportatzaileei eta Bidezko Merkataritzako Dendei esker iristen dira horien artikuluak gure eskuetara.

Bidezko merkataritza ahalbidetzen duen azken maila gara Pertsona Kontsumitzaileak. Erantzukizunez erabili behar dugu gure ahalmena kontsumo-jardunetan, produktuen prezioa ez ezik, zer baldintza sozial eta ekologikotan egin dituzten ere kontuan hartuta. Gure esku dago esplotazioa baztertzeko laguntza eskaintzea.

BIDEZKO MERKATARITZAKO PRINTZIBIOAK

Produkzioa:

Erakunde parte-hartzaile eta demokratikoetan eratzten dira Hegoko herrialdeetako pertsona behartsuak; honako ezaugarri hauek dituzte erakunde horiek:

- Lan-harremanen eta soldaten duintasuna.
- Genero-berdintasuna.
- Umeen esplotazio eza.
- Zonaldeko ingurumena eta kultura errespetatzea.

Inportazioa eta banaketa:

Hegoko herrialdeetako Erakundeek (GGKEak edo irabazi-asmorik gabeko enpresa sozialak) Hegoko elkarrekin dituzten harremanek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Zuzeneko harremana, bitartekotzarik gabe
- Prezio duina eta bidezkoa ordaintzea, kostu errealak betetzen dituena
- Merkataritza eta finantza kudeaketa argia
- Merkataritza harremana epe luzera
- Gizarte-inbertsioak
- Prestakuntza programak eta laguntza teknikoak
- Sentsibilizazio eta prestakuntza lana

BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUAK

Afrika, Asia eta Ameriketako hainbat herrialdeetako pertsona produzitzaileen lanaren emaitza dira Bidezko Merkataritzako produktuak.

Denda solidarioetan ez ezik, zenbait betiko establezimendutan, banaketa-kate handitan eta web-orritan ere eskura ditzakegu kontsumitzaileek produktu horiek.

Bidezko Merkataritzako Produktuen artean, elikagaigintzako produktuez gain —hala nola kafea, kakaoa, txokolatea eta azukrea—ehungintzako eta artisautzako beste hainbat ere aurki ditzakegu.

ZER EGIN DEZAKEGU PERTSONA KONTSUMITZAILEAK GAREN ALDETIK?

Produkzio eta merkataritza baldintzen hobekuntzan parte hartzen dugu Bidezko Merkataritzako produktuak erostean, KONTSUMO ARDURATSUA bultzatuta. Erosketa selektiboa da, produktuaren osagai sozial eta ekologikoari lehentasuna ematen diona. Iparreko gizartearen publizitate-praktika ez-etikoen eta ohitura kontsumisten salaketa da erosketa-aukera hori.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

Merkataritza, Kontsumo eta Industria
Segurtasuneko Sailburuordetza
Kontsumo eta Industria Segurtasuneko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

Viceconsejería de Comercio, Consumo
y Seguridad Industrial
Dirección de Consumo y Seguridad
Industrial